

Prentsa oharra

Nota de prensa



Turismo Sostengagarria
Turismo Sostenible



ILLUNBEKO AUTOBUS ANEZKA ARRAKASTA HANDIAREKIN AMAITU DA

Donostia erdialdearen eta Illunbeko disuasio-aparkalekuaren arteko autobus-zerbitzuak arrakasta handia izan du aurten. 24.000 erabiltzaile baino gehiago igo dira doako busera, 2020an erregistratutakoen ia bikoitza.

Autobus anezka honen bultzatzaile izan den Cristina Lagé Turismoko zinegotziak, hiriak behar duen eta denboran iraun behar duen zerbitzu bat dela deritzo. “Hiriaren erdigunera autorik ez eramatea ona izango da Donostiarentzat. Datorren urtea ez da doakoa izango, baina autobus elektriko bat izango dugu, Europako Next Generation funtsetatik 600.000 euroekin erosia, zerbitzua egingo duena, hiriko bizikleta publikoekin lotutako garraio jasangarri batean”.

Autobus anezkak San Sebastián Shops merkatarien elkartearen, Donostiako Udaleko Mugikortasun Sailaren eta Dbusen laguntza izan du, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza BasqueTourren bidez. Uztailaren erdialdetik abuztuaren 31ra arte funtzionatu du, hogei minuturo maiztasunarekin eta egunero batez beste 300 auto hiriko erdigunera sartzea saihestuz.

Prensa oharra

Nota de prensa



Aurten, batez beste, 595 bidaiari izan dira egunean; 2020an, berriz, 267.